


Maddalen & Jon Joseba Arbe Kirolak



*Berlin-eko Premium
Window Dresser
Award 2012-tarako
finalistak*

Lagun maiteak,

BÉRRIRO ERE OSPAKIZUNETAN GAUDE!! Gure erakusleihoek jada oihartzuna izan dute atzerrian eta gure azken proposamena Berlin-eko Premium Window Dresser Award 2012-tarako finalistetako bat bezela aukeratu izan da. Uste dugu, urteetan egindako eginahal eta lanaren ondorioa dela. Beti saiatu gera punta-puntako tendentzien erabileraz erakusleho garaikide eta gainontzekoengadik erabat ezberdinak egiten. †Betik ere ikusgarritasun puntu hori lortu naihan, sekula ez degu inortxo ere jarrera epelean utzi. Makina bat herrikoi, probintzialak eta nazioarteko sari bat ere jaso eta gero, aurtengo apirilean, Bartzelonako Visual-meeting aldizkariak gure erakuslehoei buruzko artikulu bat argitaraltzen zuen. Eta oraingo Iraila honetan maila internazionalen aintzat hartu gaituzte azkenik, Berlineko Premium Window Dresser Award-eko finalista aukeratuak izan ondoren.

Gure Maddalen eta Jon Joseba, Alemaniako hiriburuan izan dira joan den abuztuko azken astean, beraiek diseinaturiko erakuslehoaren muntaia egiten, eta Irailak 5-ean hasiera ofiziala eman zitzaion leihaketari, prentsa espezializatuari eta gainontzeko bestelako komunikabideei aurkezpenarekin batera. Kontutan hartu beharreko oihartzuna izaten ari du bai Alemanian zein gainontzeko European, eta zihur gaude zuei, gure lagun guztioi, esker, hemen ere jakinaraziko degula honen berri. Zuen laguntza osoa beharko degu alemaniarrei aurre egiteko.

Alemaniarrek ez diren lehen diseinatzaileak gera final honetara heltzen, eta argi daukagu ez dela batere erreza izango beraien etxean irabaztea. Hala ta guztiz ere, ez degu dudarik denon artean lortzea posible degula.

Botuak jasotzen duen web horria jada martxan da, ††eta Urriak 5-erarte jarraituko du.

Egun honetan jakinaraziko da zein suertatu den leihaketan garaile. Irabazleak, 2013-ko urtarrilean Berlin-eko Galerías Lafayette-eko erakuslehoak janzteko aukera izango du, Berlin Fashion Week-ekin batera. Kapaz ikusten degu geure burua erronka honi aurre egin eta Berlindarrak zein Alemaniarrak liluratuta uzteko gure erakuslehoetako batekin. Zuen botua eta elkartasuna izango degulakoan gaude eta alde aurre bihotzez eskertzen dizuegu.

*Besarkada bat
Maddalen & Jon Joseba
Arbe Kirolak*